

MANIFESTUA

ELKARTEANek (Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte Koordinatzailea), desgaitasun fisikoa duten herritarrak ordezkatu, defendatu eta horien aldarrikapen-ekintzak burutzeko plataformak, **MARTXOAREN 8A, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA** dela eta, desgaitasun fisikoa eta organikoa duten emakumeen errealitatea politika publikoetan txertatzea aldarrikatzen du.

Beharrezkoa da zeharka lantzea, desgaitasunaren ikuspegia genero-politiketan txerta dadin eta gure garapen osoa ziurtatzeko behar diren neurri guztiak har daitezten. Izan ere, desgaitasun fisikoa eta organikoa dugun emakumeok eskubidea dugu gizonek bezala gure eskubideak erabili eta baliatzeko, jasaten ditugun egiturazko desberdintasun-alderdiak gaindituz. Horretarako:

ALDARRIKATZEN DUGU:

- Gure **ahalduntzea** bultzatu eta etorkizuna erabakitzeko eta non, nola eta norekin bizi nahi dugun erabakitzeko eskubidea bermatzea, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuak izan gabe, eta genero-rol edo estereotipoek eraginda bide zehatz bat hartzera behartuak izan gabe.
- Komunitateko zerbitzu, baliabide eta espazio guztietarako sarbidea ziurtatzea, gure **segurtasuna** eta **partaidetza** bermatuz; batzuetan, gehiegizko babesak, zaintza-rolak eta irisgarritasun unibertsalaren faltak mugatu egiten baitute.
- Gure **prestakuntza** erraztea eta ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan lan egiteko dugun eskubidea bermatzea, gure gaitasunak eta trebetasunak garatu ahal izateko, bakoitzaren premiei erantzunez.
- Mendekotasun-egoeran dauden beste pertsona batzuen **zaintzaile-lanetan** aritu nahi dugun emakumeekiko diskriminazioa desagerraraztea, horretarako behar ditugun laguntzak eta bateratze-neurriak erraztuz.
- Gure errealitatea eta beharrak txertatzea **indarkeria** matxista jasan duten **emakumeentzako prebentziozko politiketan, laguntzeko, arreta emateko eta babesteko politiketan eta kaltea konpontzeko politiketan**, kontuan hartuta jasan ditzakegun askotariko indarkeria-motak eta erasotzaileen aniztasuna.
- Dimensio **sexualaren** era askotako alderdiak zein ama izateko gure nahia (askatasunez hala aukeratzeko dugunean) garatzea ukatzen duten estereotipoak apurtzea.
- Aldaketak bultzatzen laguntzea, eta horretarako gure **ahalduntzea** sustatu behar da.

2023ko martxoaren 8a.

ELKARTEAN

Ondarreta 5, behea
20018 Donostia - San Sebastián
Tel. 943 316 770
elkartean@elkartean.org
www.elkartean.org

ELKARTU

Ondarreta 5, behea
20018 Donostia - San Sebastián
Tel. 943 316 770
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

FEKOOR

Blas de Otero 63, behea
48014 Bilbao
Tel. 944 053 666
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

EGINAREN EGINEZ

Simón Bolívar plaza 9, behea
01003 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 225 516
info@eginez.org
www.eginez.org